



DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Donostiako Udala - 2024ko Aurrekontuak

Aurrekontua erabiltzeko araua

Aurkibidea

1. I. TITULUA. ARAU OROKORRAK ETA KREDITUA ALDATZEA	7
1.1. I. kapitulua. Arau orokorrak	7
1.1.1. 1. artikulua. Iraupena.	7
1.1.2. 2. artikulua. Esparrua.	7
1.1.3. 3. artikulua. Aurrekontu kredituak	7
1.1.4. 4. artikulua. Kredituen lotura juridikoak.	7
1.2. II. kapitulua. Kreditu aldaketak	8
1.2.1. 5. artikulua. Kreditu aldaketak.	8
1.2.2. 6. artikulua. Kreditu transferentziak.	9
1.2.3. 7. artikulua. Kreditua sortzea sarreren bidez edo kredituak gaituta.	11
1.2.4. 8. artikulua. Kreditu zabalgarriak.	11
1.2.5. 9. artikulua. Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak edo kreditu osagarriak.	12
1.2.6. 10. artikulua: Kreditu-gerakina txertatzea.	13
1.2.7. 11. artikulua. Kredituak bajan ematea.	14
1.2.8. 12. artikulua. Hainbat urtetarako gastuak eta konpromiso-kredituak	14
2. II. TITULUA: GASTUEN GAINEAN	15
2.1. I. kapitulua. Arau nagusiak.	15
2.1.1. 13. artikulua: Aurrekontu urtealdia.	15
2.1.2. 14. artikulua. Gastuen kudeaketaren aldiak.	15
2.2. II. kapitulua. Aurrekontu gestioa.	15
2.2.1. 15. artikulua. Kreditu ez erabilgarriak.	15
2.2.2. 16. artikulua. Gastuak baimentzea.	16
2.2.3. 17. artikulua. Gastuak erabiltzea.	17
2.2.4. 18. artikulua. Obligazioak onartzea.	17
2.2.5. 19. artikulua. Ordaintzeko agintzea.	18

2.2.6. 20. artikulua. Ordain mota guztietarako irizpide orokorra.	18
2.3. III. kapitulua. Administrazio prozedura.	20
2.3.1. 21. artikulua. Langile gastuak.	20
2.3.2. 22. artikulua. Dirulaguntzak eta transferentziak.	20
2.3.3. 23. artikulua. Inbertsioak.	23
2.4. IV. kapitulua. Justifikatu beharreko ordainak, kutxa finkoaren aurrerakinak eta aurretiko ordain aplikatu gabeak.	23
2.4.1. 24. artikulua. Justifikatu beharreko ordainak.	23
2.4.2. 25. artikulua. Kutxa finkoaren aurrerakinak.	24
2.4.3. 26. artikulua. Aplikatzeke dauden aurreko ordainketak.	25
2.5. V. kapitulua. Obligazioak iraungitzea.	25
2.5.1. 27. artikulua. Obligazioak iraungitzea.	25
3. III. TITULUA: SARRERENA	26
3.5.1. 28. artikulua. Udal Diruzaintza Publikoa.	26
3.5.2. 29. artikulua. Diruzaintza plana	26
3.5.3. 30. artikulua. Diru sarreraren gestio faseak.	26
3.5.4. 31. artikulua. Dirua sartzeko konpromisoa.	26
3.5.5. 32. artikulua. Eskubideak aitortzea.	27
3.5.6. 33. artikulua. Onartutako eskubideak ordaintzea.	27
3.5.7. 34. artikulua. Kreditu eragiketak eta bermeak emateko mugak.	28
3.5.8. 35. artikulua. Finantza erakundeetan funtsak gordailutzea.	29
3.5.9. 36. artikulua. Berandutza interesak eta lehentasunezko interesa.	29
3.5.10. 37. artikulua. Diru sarrerak kontabilizatzea.	29
4. IV. TITULUA: AURREKONTUA LIKIDATZEA	31
4.5.1. 38. artikulua. Gastuen egoerako aurretiko eragiketak.	31
4.5.2. 39. artikulua. Sarreraren egoerako aurretiko eragiketak.	31
4.5.3. 40. artikulua. Ekitaldia likidatzea.	31
4.5.4. 41. artikulua: Diruzaintzako gerakina.	32

5. V. TITULUA. PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA	33
5.5.1. 42. artikulua. Edukia, eskumena eta mugak.	33
6. VI. TITULUA. BARNE KONTROLA	34
6.1. I. KAPITULUA. BARNE KONTROLA	34
6.1.1. 43. artikulua. Barne-kontrolerako eredua.	34
6.1.2. 44. artikulua. Barne-kontrolaren eremu subjektiboa.	34
6.2. II. KAPITULUA. EGINKIZUN KONTU-HARTZAILETZA	35
6.2.1. 45. artikulua. Kontu-hartzaitzaren faseak.	35
6.2.2. 46. artikulua. Diru-sarreretan kontu-hartzaitza egitea.	35
6.2.3. 47. artikulua. Gastuetan kontu-hartzaitza egitea.	36
6.2.4. 48. artikulua. Gastuen aldez aurreko fiskalizazioaren mende ez daudenak.	37
6.2.5. 49. artikulua. Fiskalizazioa eta ondorengo kontu-hartze osoa.	38
6.2.6. 50. artikulua. Obligazioak aitortzeko aurretiazko kontu-hartzea eta inbertsioaren egiaztapen materiala egiteko kontu-hartzaitza.	38
6.2.7. 51. artikulua. Ordainketaren kontu-hartze formala eta materiala. Kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketak.	39
6.2.8. 52. artikulua. Kontratazio txikiaren barne-kontrola.	39
6.2.9. 53. artikulua. Gastuak aldez aurretik fiskalizatu eta kontu hartzeko prozedura.	40
6.2.10. 54. artikulua. Kontu-hartzaitzako eginkizuna ez betetzea.	41
6.3. III. KAPITULUA. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN FINANTZA-KONTROLA	42
6.3.1. 55. artikulua. Finantza-kontrola.	42
6.3.2. 56. artikulua. Finantza-kontrolaren plangintza.	43
6.3.3. 57. artikulua. Finantza-kontrolaren emaitzak.	43
6.4. VI. KAPITULUA. LABURPEN-TXOSTENA ETA EKINTZA-PLANA	44
6.4.1. 58. artikulua. Laburpen-txostena.	44
6.4.2. 59. artikulua. Ekintza-plana.	44

6.4.3. 60. artikulua. Udaleko kontu-hartzaitzak egin beharreko beste txosten batzuk.	44
--	----

7. VII. TITULUA UDAL TALDE POLITIKOENTZAKO DIRU-ESLEIPENEN ZERTARAKOA ETA JUSTIFIKAZIOA **46**

7.1. I. KAPITULUA. ESLEIPENAK **46**

7.1.1. 61. artikulua. Zenbatekoa	46
7.1.2. 62. artikulua. Aldez aurreko betekizunak	46
7.1.3. 63. artikulua. Araubide juridikoa	46

7.2. II. KAPITULUA. ZERTARAKOA **47**

7.2.1. 64. artikulua. Zertarakoa	47
7.2.2. 65. artikulua. Funtzionamendu-gastuak	47
7.2.3. 66. artikulua. Udal talde politikoek alderdi politikoei egindako ekarpenak	49

7.3. III. KAPITULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ITZULKETA. **49**

7.3.1. 67. artikulua. Kontabilitate espezifikoa	49
7.3.2. 68. artikulua. Diru-esleipenaren justifikazioa	50
7.3.3. 69. artikulua. Agintaldiaren amaierako kontua	50
7.3.4. 70. artikulua. Gerakinak eta itzulketak	51

7.4. IV. KAPITULUA. KONTU HARTZAITZAK KONTROLATZEA. KONTU-EMATEA UDALBATZARI **51**

7.4.1. 71. artikulua. Udal Kontu Hartzaitzak kontrolatzea	51
7.4.2. 72. artikulua. Udalbatzari kontu-ematea	51

7.5. V. KAPITULUA. PUBLIZITATEA ETA GARDENTASUNA **51**

7.5.1. 73. artikulua. Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea	51
7.5.2. 74. artikulua. Diru-esleipenen publizitate aktiboa	52

7.5.3. Lehen xedapen gehigarria. Akordio edo hitzarmen lehiaketak	52
7.5.4. Bigarren xedapen gehigarria. Informazioa	52
7.5.5. AZKEN XEDAPENA	52

8. I. ERANSKINA **53**

9. II. ERANSKINA **54**

1. I. TITULUA. ARAU OROKORRAK ETA KREDITUA ALDATZEA

1.1. I. kapitulua. Arau orokorrak

1.1.1. 1. artikulua. Iraupena.

Arauk aurrekontuak beste iraungo du eta honen indarraldia luzatuko balitz, arauak luzapenean ere izango ditu ondorioak.

1.1.2. 2. artikulua. Esparrua.

Araua Udalaren aurrekontua gauzatzeko aplikatuko da, arau honen VI. Tituluan udal-sektore publiko osoaren barne-kontrolaren eredia definitzeari buruz xedatutakoa eragotzi gabe.

1.1.3. 3. artikulua. Aurrekontu kredituak

Gastuen Egoeran zehazturiko kantitateak mugari dira aurrekontuaren indarraldiarekiko eta lotesleak aurrekontu egiturarekiko zein honako arau honek xedatzen dituen lotura juridikoen mailekiko. Kredituak aurrekontuan sartzeak ez du inongo eskubiderik sortzen.

Oro har, soilik hartu daitezke obligazioak urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte baimenduriko gastuak direla eta, legeek onartutako salbuespenekin. baimendutako gastuetatik eratorritako betebeharrak hartu ahal izango dira

1.1.4. 4. artikulua. Kredituen lotura juridikoak.

Ezingo da gastu konpromisorik hartu gastuen egoeran onartutako kredituak gaindituz gero, horrelakoak mugatzaile baitira ondorengo lotura mailan:

LANGILEEN ORDAINSARIAK: kapitulua, honako programa hau izan ezik: Ekonomia Garapena eta Enplegua.

GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN: programa eta kapitulua.

Hiriko Hondakin Solidoen Bilketa programa, Hondakinen Kudeaketa: San Marko programa, eta Hondakinen tratamendua: San Marko programa. Programa hauek talde mailako lotura izango dute.

Ura eta Saneamendua: Zuzendaritza eta Administrazioa; Ura; Uraren hornikuntza: Añarbe; Saneamendua eta Saneamendu arazketa: Añarbe. Programa hauek beraien arteko lotura izango dute.

INTERESAK ETA FINANTZA-PASIBOAK: programa eta kapitulua.

TRANSFERENTZIAK, DIRULAGUNTZA ARRUNTAK ETA KAPITAL DIRULAGUNTZAK: programa eta kontzeptua (dirulaguntza izendunak izan ezik)

INBERTSIOAK ETA KAPITAL TRANSFERENTZIAK: programa eta artikulua, dauden aurrekontu-aplikazioen artean.

FINANTZA AKTIBOAK: programa eta artikulua.

Ekonomia Garapena programa mailan lotuko da.

1.2. II. kapitulua. Kreditu aldaketak

1.2.1. 5. artikulua. Kreditu aldaketak.

Lotura juridikoaren maila gainditzen duen gastu bat egin nahi denean, kredituak aldatzeko espediente bat izapidetuko da, kapitulu honetan araututako berezitasunen arabera.

Kredituen edozein aldaketa egiteko, zergatik aldatu nahi den funtsatu beharko da, baita azaldu ere aldaketa horrek nolako eragina izango duen aurrekontua gauzatzerakoan xedaturiko helburuak lortzeari begira.

Kreditua aldatzeko espediente guztien gainean eman beharko du iritzia Kontu-hartzaitzak, eta hurrenkeran zenbakitu beharko ditu kontu nagusian justifikatzekotan.

Lotura juridikoko poltsa baten barruan aurrekontu sail bat sortzea ez da kreditu aldaketatzat hartuko, baizik eta kontabilitate doikuntzatzat,; izan ere, aurrekontu sail horrek, aldaketa kuantitatiborik ekarri gabe, informazio gehiago ematen du egindako gastu-motari buruz.

Era berean, aurrekontu sailak sortu ahal izango dira 6., 7. eta 8. kapituluetan, aurrekontuan aurreikusitako jarduerak beste era batean egiteko, baina kredituaren jatorrizko aurrekontu-aplikazioa sortu zen helburu berarekin, eta aurrekontu zuzkidura kreditu transferentzia baten bitartez jasoko dute. Transferentzia hauek konpromisoko kredituak dituzten ordainketa kredituetan egiten badira, sortu den partida berriaren arabera aldatuko dira.

“Udalaren lurzoru ondarearen gastuak” atalean sartutako inbertsio gastuak, aipatutako ondareari lotutako sarrerak eta era berean beste sarrera batzuek finantzatzen duten aipatutako ondareari lotutako inbertsioak baino handiagoak dira, eta gehiegizko egoera hau mantentzen den bitartean, udalaren lurzoru ondareari lotutako baliabideen edozein igoerak kreditua liberatuko du eta berau udalaren lurzoru ondareari lotu gabeko inbertsioetara zuzen daiteke.

1.2.2. 6. artikulua. Kreditu transferentziak.

Gastu bat egin nahi bada eta kreditua nahikoa ez bada, baina lotura juridiko maila desberdinei dagozkien beste kontu sail batzuetatik kreditua zati bat edo guztia gutxitzea posible bada, gastuen egoerako zenbateko osoa aldatu gabe, kreditua transferitzeko espediente bat onartuko da.

Udalaren Lurzoru Ondarearen barne dauden jarduerak baliabideak gainditzen dituztenean, posible izango da kredituak transferitzea jarduera horietatik sartuta dauden beste batzuetara, baita Udalaren Lurzoru Ondarearen barne sartuta ez dauden beste batzuetara ere.

Alorreko ordezkariari dagokio programa barneko honako transferentzia hauek onartzea:

- a) 1. kapitulutik 2. kapitulura, justifikatutako kasuetan.
- b) 2.kapitulukokontzeptuetatik 1.,4.,6.,7.eta8.kapituluetakobeste kontzeptuetarakoak.
- c) 4.kapitulukokontzeptuetatik 2.,4.,6.,7.eta8.kapituluetakobeste kontzeptuetarakoak.
- d) Transferentziak, halaber, 6, 7 eta 8. kapituluetakokontzeptuen artean.
- e) Transferentziak, 6., 7. eta 8. kapituluetan aurrekontu-partidak sortzeko, aurrekontuan aurreikusitako jarduerak beste era batean egiteko, baina kredituaren jatorrizko aurrekontu-aplikazioa sortu zen helburu berarekin.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak honako transferentzia hauek egin ditzake:

- a) Kreditu orokorrekoak edo aurrekontua betearazteko kontingentzia-funtsekoak.
- b) 1.kapituluko kontzeptuetatik 1., 2., 3., 4., 6., 7., eta 9. kapituluetakoko kontzeptuetarakoak.
- c) Programen artean egindakoak proiektu bat hainbat programatik finantzatzearen ondorioz.
- d) 3. eta 9. kapituluetakoko kontzeptuen arteko transferentziak eta kapitulu horietako kontzeptuetatik beste kapituluetakoko kontzeptuetarakoak.
- e) Herri Partaidetza eta Ekialdeko Barrutiko 619 kontzeptutik edozein kapitulu eta programatako beste kontzeptu batzuetarako transferentziak, beti ere aurrekia positiboa bada, aurrekontuan herri partaidetzatik eratorriko jarduketak behar bezala sailkatzeko.

Tokiko Gobernu Batzordeak bere esku izango ditu transferentzia hauek:

- a) 2. kapituluko kontzeptuetatik 1., 2., 4., 6., 7. eta 8. kapituluetakoko kontzeptuetarakoak.
- b) 4. kapituluko kontzeptuetatik 1., 2., 4., 6., 7. eta 8. kapituluetakoko kontzeptuetarakoak.
- c) 6., 7. eta 8. kapituluetakoko kontzeptuen arteko transferentziak.
- d) Transferentziak, 6., 7. eta 8. kapituluetan aurrekontu-partidak sortzeko aurrekontuan aurreikusitako jardueran beste era batean egiteko, baina kredituaren jatorrizko aurrekontu-aplikazioa sortu zen helburu berarekin.

Tokiko Gobernu Batzordeak aurrekontu aplikazio berriak sortu ahal izango ditu programa bakoitzaren barruko transferentzien bidez edo programen arteko transferentzien bidez ordaintzeko betebeharrak irmoa duten epai judizialeetatik datozen gastuetarako.

Udalaren Osoko Bilkurari dagozkio honako transferentzia hauek programa bakoitzaren barruan edo programen artean:

- a) Aurrekontuan jaso gabeko inbertsio berrietarako aurrekontu aplikazioak sortzeko transferentziak.
- b) Aurrekontuan jaso gabeko dirulaguntza izendun berrietarako aurrekontu aplikazioak sortzeko transferentziak.
- c) Aurrekontuan aldeztutako dirulaguntza izendunen kreditua handitzeko

transferentziak.

Espedientea abiaraziko du Ekonomia Kudeaketako Zuzendaritzak eta eragindako ordezkarien oniritzia ez ezik, Kontu-hartzailetzak nahitaezko txostena ere izan beharko du.

Onartutako transferentziak berehala betearaztekoak izango dira.

Transferentzia baten onarpena Udalbatzari ez badagokio, Ogasuneko Informazio Batzordeari emango zaio hura onartu izanaren berri, Kontu-hartzailetzaren bidez.

1.2.3. 7. artikulua. Kreditua sortzea sarreren bidez edo kredituak gaituta.

Gastuen egoeran kreditu-sortzaile izan daitezke honako sarrera hauek:

- a) Pertsona fisikoen eta juridikoen ekarpenak edo ekarpen konpromisoak, Udalarekin batera honen eskumeneko gastuak ordaintzekoak.
- b) Ondare ondasunak besterentzea: aurreikusi gabeko hirigintza aprobetxamenduak eta egiten ari diren aparkaleku publikoak.
- c) Zerbitzuak ematea.
- d) Maileguak berreskuratzea.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak baimendu beharko du sarrerengatiko kreditu sorrera.

Ekonomia Kudeaketako Zuzendaritzak ekingo dio espedienteari, eta Ogasuneko Informazio Batzordeari emango zaio onartu izanaren berri.

1.2.4. 8. artikulua. Kreditu zabalgarriak.

Arau honen II. eranskinean jasotako ordainketa-kredituak automatikoki zabaldu ahal izango dira diru-sarrera handiagoak lortuz gero.

Zabalgarritzat hartuko dira Next Generation funtsei lotutako inbertsioetarako aurrekontu sailak diruz lagundutako zenbatekoraino.

Interbentzio nagusiak baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean kreditu zabalkuntza egingo da eta Ogasuneko Informazio Batzordeari aldaketaren berri emango zaio.

Era berean, kreditu globala edo aurrekontua gauzatzeko kontingentzia funtsa zabalgarritzat jotzen da, zerga sarrerei dagozkien eskubide aitort handiagoengatik.

Espedientea Ekonomia Kudeaketako Zuzendaritzak abiaraziko du.

Udalbatzak onartuko du espedientea, eta hasierako ordainketa-kredituen % 5eko muga errespetatuko du, betiere.

1.2.5. 9. artikulua. Ohiz kanpoko kredituak eta kreditu gehigarriak edo kreditu osagarriak.

Ekitaldian zehar hurrengo ekitaldira arte atzeratu ezin den gastu bat egin behar bada eta aurrekontu krediturik ez badago, ezohiko kreditu bat onartu ahal izango da.

Ohiz kanpoko kredituen edo kreditu gehigarrien aurrekontu aldaketen proposamen guztiak dagokion ordezkariaren txosten bat izan beharko du, egin beharreko gastua beharrezkoa edo premiazkoa dela egiaztatzen duena.

Kreditua badago baina nahikoa ez bada eta zabalgarria ez bada, kreditu osagarri bat onartu ahal izango da.

Krediturik izan arren, behar bestekoa ez balitz, honako baliabide hauetako bat edo beste erabilita finantzatuko da:

- » Diruzaintzako soberakin likidoa.
- » Aurrekontuak xedaturikoak baino likidatutako sarrera handiagoak edo sarrera berriak bildu izana.
- » Kreditu konprometitu gabeak bertan behera uztea edo murriztea, programaren helburuak aldatu gabe murriztu ahal izanez gero.
- » Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan (34. artikuluaaren bigarren ataleko hirugarren paragrafoan) aipatzen diren kreditu eragiketen bidez.

Espedientea Ekonomia Kudeaketako Zuzendaritzak bideratuko du eta ordezkarien oniritziak ez ezik, Kontuhartzaitzaren nahitaezko txostena ere eraman beharko du.

Espedienteek aurrekontuaren administrazio izapide berberak bete beharko dituzte.

Alkateari dagokio bi baldintza hauek betetzen dituzten kreditu gehigarriak onartzea: denek batera hasierako aurrekontuaren % 3 ez gainditzea eta ez finantzatzea ez kapital eragiketen aurrekontu kredituak deuseztatu bidez, ez eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan (34. artikulua-ren bigarren ataleko hirugarren paragrafoan) aipatzen diren kreditu eragiketen bidez ere.

Aparteko kasu horretarako, ez dira aplikatuko aurrekontu orokorraren informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsio arauak.

Ogasuneko Informazio Batzordeari onartutako aldaketen berri emango zaio.

1.2.6. 10. artikulua: Kreditu-gerakina txertatzea.

Aurrekontua likidatuta, Kontuhartzaitzak honako hauek jasoko ditu egoera txostenean:

- a) Xedatutako gastuen saldoak, obligazioa onarturik ez dutenena.
- b) Aurreko ekitaldietan onartutako konpromisoak finantzatzeko gastu baimenen eta kreditu erabilgarrien saldoak.
- c) , 7. eta 8. kapituluetakoko kredituen saldoak.
- d) Sarrera eragindakoek bermatutako kredituen saldoak, derrigorrez jaso beharrekoak baitira.

Proposamena programaren ardura duten langile teknikoek aurkeztuko dute, gerakinak sartzeko proposamen arrazoitua egin dezaten, eta ekitaldian gauzatzearen ziurtasuna egiaztatu dezaten.

Kreditu-gerakinen txertaketa finantzatzeko behar beste finantza baliabide izanez gero jatorrizko ekitaldian, alkateak onartuko du horiek txertatzea aurrekontuaren likidazioarekin batera, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak aurretik onartuz gero.

Jatorrizko ekitaldian eta indarrekoan finantza baliabiderik izan ezean, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko Ordezkariak, Kontuhartzaitzaren txostena jaso ondoren, lehentasunak ezarriko ditu aurrekontuan jaso beharreko txertaketei dagokienez, aurreko ekitaldiko konpromisoen arabera.

Horiek txertatzean indarreko ekitaldian bildutako diru-sarrera berriak edo handiagoak behar badira edo indarrean dagoen ekitaldiko gastuak murriztu badaitezke, Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio horiek onartzea. Onarpen hori berehala betearaztekoa izango da.

Kreditu-gerakinen txertaketa aurrekontuan jaso daiteke hori likidatu aurretik honelakoren bat izanez gero:

- a) Sarrera espezifikoekin finantzatutako kredituak.
- b) Aurreko ekitaldian esleitutako kontratuak edo presazko gastuak, Kontuhartzaitzak segurtatzen badu ez dutela defizitik sortuko.

1.2.7. 11. artikulua. Kredituak bajan ematea.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak kredituak bajan emateko eska diezaioke Tokiko Gobernu Batzordeari honako hauetakoren bat gertatuz gero:

- a) Aurreko ekitaldia likidatuta, diruzaintzako gerakina kutxako soberakina negatiboa izanez gero.
- b) Sarreraren aurrekontua gauzatzekoan, zenbateko nagusiak, oinarrian, hasieran aurreikusita baino oso desberdinak izatekotan.
- c) Kreditu gehigarrien finantzaketa.
- d) Udalbatzarraren beste erabaki batzuen betearazpena.

1.2.8. 12. artikulua. Hainbat urtetarako gastuak eta konpromiso-kredituak

Tokiko Gobernu Batzarrak, egikaritze erritmoaren aldaketak eraginda, konpromiso kredituen urterokoak aldatu ahal izango ditu, betiere kreditu bakoitzaren zenbateko osoa aldatzen ez bada. Kasu honetatik kanpo, konpromiso kredituen aldaketak Udal Batzaren eskumenekoak izango dira.

2. II. TITULUA: GASTUEN GAINEAN

2.1. I. kapitulua. Arau nagusiak.

2.1.1. 13. artikulua: Aurrekontu urtealdia.

Gastuen egoerako kredituen kargura, ekitaldian egindako gastuetatik eratorritako betebearra bakarrik kontabilizatu ahal izango dira.

Salbuespenez, indarreko aurrekontuan honako obligazio hauek aplikatuko dira:

- a) Langileen atzerakinak.
- b) Kreditu-gerakinen txertaketa
- c) Aurreko ekitaldietako gastuak, aurretik onartu ez zirenak. Horrelakoetan, indarreko aurrekontua erabiltzeko programaren teknikari arduradunak txostena aurkeztu beharko du ziurtatzeko hori egitekotan ez zaiela kalterik edo murrizketarik egingo ekitaldiko betebeharrei.

2.1.2. 14. artikulua. Gastuen kudeaketaren aldiak.

Gastu aurrekontua honako aldi hauek erabilia kudeatuko da:

- a) Gastua baimentzea.
- b) Gastua erabiltzea.
- c) Obligazioa onartzea.
- d) Ordaintzeko agintzea.

2.2. II. kapitulua. Aurrekontu gestioa.

2.2.1. 15. artikulua. Kreditu ez erabilgarriak.

Aurrekontua erabiltzerakoan oreka ekonomiko-finantzarioa arriskuan jar dezakeen egoera gertatuz gero, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak, alorretako ordezkariekin batera, kreditu batzuk erabilgarri ez daudela deklaratu ahal izango du. Ordezkarri berak izango du ahalmena halako kredituak berriro erabilgarri bihurtzeko.

Aurrekontu-ekitaldian finantza-oreka mantentzen dela ziurtatzeko, eta, dagokien espedientearen bidez, inbertsioen exekuzioa martxan jarri baino lehen, beharrezkoa izango da Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak adierazpen idatzi bat egitea, inbertsiorako baimena emateko edo inbertsioa atzeratzeko, kontuan hartuta aurrekontu-ekitaldian sarrerek eta gastuek, arruntek eta kapitalekoek, benetan bilakaera orekatua izan duten ala ez.

2.2.2. 16. artikulua. Gastuak baimentzea.

Gastua baimentzea ordainketa-kreditu jakin baten eta, hala badagokio, konpromiso-kreditu baten kontura zenbateko zehatz edo gutxi gorabeherako batean egitea erabakitzen duen egintza da.

Aurrekontu Orokorra osatzen duten Entitateei egin beharreko ekarpenak jaso ahal izateko, eskaera egon beharko da eta Kontuhartzaitzak egiaztatu beharko du diru beharra.

Maileguen interesen eta amortizazioaren gastuak fase guztietan kontabilizatuko dira, izapide gehiagorik gabe, kontuan kargatu eta Kontuhartzaitzak egiaztatu ondoren.

Programaren teknikari arduradunak onartu beharko ditu honako gastu baimentze hauek:

- a) 000 €ko zerga-oinarria (BEZik gabe) baino gutxiagoko hornidura eta zerbitzu kontratu txikietan.
- b) Proiektua behar ez duten eta 10.000€ko zerga-oinarria (BEZik gabe) baino gutxiagoko obra kontratu txikietan.

Horrelako gastu baimenak honela izapidetuko dira:

- » Arduraduna harremanetan jarriko da hornitzailearekin zenbatekoa zehazteko, eta Eskaearen atal guztiak beteko ditu.
- » Kontularitzak txostena emango du kreditua dela adierazteko eta horrek gastua baimentzeko fasea amaituko du.
- » Programaren teknikari arduradunak ontzat emandako faktura baliozko agiria izango da ordaintzeko agintzeari ekiteko.

Ordezkariek honako gastua hauek baimenduko dituzte:

- a) Obra, hornidura eta zerbitzuetako gainontzeko kontratu txikietan.

- b) Aurrekontuak berariaz xedatutako dirulaguntza izendunak. Aurrekontuan izendun gisa aurreikusitako zenbatekoen goranzko aldaketa Udal Batzaren eskumena izango da.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkarien ardura da honako gastu hauek baimentzea:

- a) Langileen ordain-sariak.

Tokiko Gobernuaren Batzordearen ardura da honako gastu hauek baimentzea:

- a) Aurrekontuak eta bere aldaketek aurreikusitako lanak, hornigaiak, adituen txostenak, laguntza eta zerbitzuak kontratatzea. Barne egongo dira urte askotarikoak.
- b) Aurrekontuak eta bere aldaketek aurreikusitako Ondasunak eta eskubideak erostea eta saltzea.
- c) Aurrekontuak oro har aurretik xedaturiko dirulaguntzak.
- d) Legeak Udalbatzari bereziki egokitzen ez dion beste gastuak.

Oro har, espedientea abiarazi beharko da gastua baimentzeko, kontabilitateko "A" dokumentua erantsita.

2.2.3. 17. artikulua. Gastuak erabiltzea.

Gastua xedatzean formalizatzen da pertsona edo erakunde onuradun edo esleipendun baten aldeko gastu zehatz bat, zehazki zehaztutako zenbatekoan eta baldintzetan, dagozkion legezko izapideak egin ondoren.

Gastua baimentzen duen organo bera izango da gastua onartzeko eskuduna.

Oro har, espedientea abiarazi beharko da gastu erabiltzeko, kontabilitateko "D" dokumentua erantsita.

Espedienteari ekiterakoan zenbatekoa eta jasotzailearen izena zehatz jakinez gero, kontabilitateko faseak bateratuko dira "AD" dokumentuaren bitartez.

2.2.4. 18. artikulua. Obligazioak onartzea.

Obligazioa aitortzea da kreditu bat Administrazioari eskatzeko ekintza, xedapenaren xede den prestazioa behar bezala egiaztatu delako.

Hori onartzeko organo eskuduna izango da gastua baimendu duen berbera, obra ziurtagiri gaietan izan ezik, horrelakoetan ordezkarien eskuduntza izango baitira, txikiagotzat jotako lanen likidazioak salbu.

Espedientea abiarazi beharko da obligazioak onartu ahal izateko, eta kontabilitateko “O” dokumentua eraman beharko du erantsita.

Gastuaren ezaugarriak direla eta, obligazioa baimentzea, erabiltzea eta onartzea aldi berean gertatuz gero, kontabilitateko “ADO” dokumentua erantsiko da.

2.2.5. 19. artikulua. Ordaintzeko agintzea.

Ordaintzeko agintzea esaten zaio onartutako obligazioa ordaintzeko Diruzaintzak emandako aginduari.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkaria izango da organo eskuduna. Fase horretan kontabilitateko “ME” dokumentua erabiliko da.

Oro har, Kontuhartzaitzak egingo dituen ordainketa aginduen zerrenden arabera aginduko dira ordainketak.

2.2.6. 20. artikulua. Ordain mota guztietarako irizpide orokorra.

Ordainketak Diruzaintzak egingo ditu, oro har, zorren antzinasunaren arabera, ordainketen lehentasun irizpide gisa.

Egindako ordainketen gauzatze materiala honako sistema hauen bidez egiaztatuko da:

- a) Transferentzia. Horixe izango da ordainbide ohikoa. Transferentziak sartuko dira hirugarrenak adierazitako banku kontuan eta hiru sinadura baimendunak — alkatea, kontu-hartzailea eta diruzaina (titularrak edo ordezkoak)— eramango ditu. Transferentziak onartzeko zerrendak bankua, kontu zenbakia eta eguna aipatu beharko ditu gutxienez.
- b) Txekea. Ohiz kanpoko ordainbidea da. Izendunak izango dira eta hiru sinadura baimendunak izango dituzte.
- c) Eskudirutan. Oso ohiz kanpoko ordainbidea da, ordain txiki eta presazkoetarakoa. Hartzaileak bere nortasuna egiaztatu beharko du, eta pertsona juridikoa izatekotan,

kobratzeko ahalmena ziurtatu beharko du.

Obligazioaren aitortpena onartu zaien pertsona fisiko edo juridikoek jasoko dituzte ordainketak, organo judizial edo administratiboek agindutako kredituak edo bahiturak lagatzeko kasuetan izan ezik.

Salbuespen moduan, honela ere ordain daiteke:

- a) Kontuan sartzea. Bankuan helbideratzeko agindua dagoenetan erabiltzekoa: Elkarkidetzak, finantza zama eta abar.
- b) Kreditu txartela. Ibilgailuetarako erregaia, autopistako bidesaria eta abarretan erabiltzekoa.

2.2.6.1. Egiartzapenak edo fakturak kobratzeko eskubideak lagatzea.

- a) Horrelako aukera araututa dago 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. 200. artikuluan.
- b) Lagatzaileak udalarekin epez kanpoko zorra ordaindu gabe izanez gero, lagapena egingo da hirugarrenari jasotzea dagokion zenbatekoaren eta udalarekiko zorraren arteko aldea kontuan hartuta.
- c) Lagapena fede emanda jakinarazi beharko zaio Kontuhartzaitzari eta ondorioak izango ditu jakinarazpena jasotzen den unetik.
- d) Ez da lagapen orokorrik onartuko kontratu oso baterako, ezta etorkizunerako lagapenik ere. Lagapena egin beharko da egiartzapen edo faktura jakin bakoitzerako.
- e) Kontuhartzaitza edo kontuhartzaitzak eskuordetzen duen Kontuhartzaitzako funtzionario bat da lagapen dokumentuari buruzko "Arrazoi-hartzea" egiteko organo eskuduna. Arrazoi hartzearen ekintzak barne ondorioak ditu, eta lagapenaren adostasun ekintza bat besterik ez da.
- f) Ziurtagiri edo faktura bera lagatzeko jakinarazpen bi edo gehiago aurkezten badira, eta jakinarazpen edo faktura horien zenbatekoa batera gainditzen bada, lagapenak Kontuhartzaitzaren sartu diren hurrenkeraren arabera onartuko dira.
- g) Lagapen dokumentua merkataritza artekaria, udaleko idazkari nagusia edo udaleko kontuhartzaile aurrean presta daiteke. Idazkariaren edo kontuhartzailearen aurrean eginez gero, ordezkari edo ahalmena notario dokumentuz egiartzatu beharko da.

2.2.6.2. Kredituak organo judizialak edo administratiboak bahitzea

Kasu horietan, ordaintzeko agindua enbargatzen duen organoaren alde emango da, enbargatutako hirugarrena zein den adierazita.

2.3. III. kapitulua. Administrazio prozedura.

2.3.1. 21. artikulua. Langile gastuak.

Hilabeteko nominak izango dira hileroko ADO dokumentuaren euskarria.

Gizarte Segurantzako eta Elkarkidetzako kuotak, halaber, hileko ADO kontabilitate agiriaren justifikazio euskarri izango dira.

Udal langileen zerbitzuagatiko kalte-ordainak beren araudi espezifikoaren arabera arautuko dira eta, aplikagarri zaien guztian, alkatetzak alkateari eta zerbitzuagatiko ordezkariari 1999ko azaroaren 15ean emandako zirkularraren arabera.

Udal taldeentzako kalte ordainak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea aldatzen duen apirilaren 21eko 11/1999 Legeak eta garatzeko araudiak arautuko ditu.

2.3.2. 22. artikulua. Dirulaguntzak eta transferentziak.

- 1) Udalak dirulaguntzak eman ahal izango dizkie, Gastuen Egoerako 4. eta 7. kapituluetakoa kredituen kontura, erakunde publiko nahiz pribatuei, bai eta partikularrei ere, baldin eta onura publikoko, gizarte intereseko edo xede publikoa sustatzeko jarduerak egiten badituzte.
- 2) Udalak ematen dituen dirulaguntzek honako lege-arauetan xedatutakoa bete beharko dute: 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 18koa, Diru Laguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru Laguntzen Lege Orokorren Araudia onartzekoa, eta kasuan kasuko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak.
- 3) Dirulaguntzak emateko prozedura arrunta konkurrentzia lehiakor araubidean izapidetuko da.

Honako dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira. Hitzarmenen bidez bideratu ahal izango dira, eta hitzarmen bakoitzean ezarriko dira aplikatu beharreko baldintza eta konpromisoak:

- » Aurrekontuan berariaz xedatutako dirulaguntza izendunak. Aurrekontuan izendun gisa aurreikusitako zenbatekoen goranzko aldaketa Osoko Bilkuraren eskumena izango da.
 - » Lege mailako arau batek inposatuak.
 - » Dirulaguntza horien interes publikoa, soziala, ekonomikoa edo humanitarioa frogatuta badago, edo deialdi publikoan ateratzea zail egiten duten beste arrazoi batzuk badaude, behar bezala egiaztatuta
- 4) Udalak transferentziak eta ekarpenak egin ahal izango dizkie erakunde autonomoei, enpresa erakunde publikoei, sozietateei eta Udalaren partaidetza duten gainerako erakundeei, bai beren jarduera orokorra finantzatzeko erabiltzen badituzte bai esleituta dituzten eginkizunen barruan ekintza jakin batzuk egiteko behar badituzte.
 - 5) Gastuaren kudeaketaz arduratzen den zerbitzuak izapidetuko ditu dirulaguntzak emateko, itzultzeko, deuseztatzeko eta atzera egiteko espedienteak. Halaber, bera arduratuko da egiaztagiria eskatzeaz eta egiaztatzeaz, emakidan eskatutako betekizunetatik bat ere ez dela alde batera utzi egiaztatzeaz, eta, organo instruktoreak gai horiei buruzko ziurtagiria eman ondoren, justifikazioa onartzea proposatzeaz. Justifikazioa onartzeko organo eskudunak dirulaguntzak eman zituen organo bera izango da, Tokiko Gobernu Batzordeari dagozkionak izan ezik. Kasu hauetan dagokion zerbitzuak egingo du.

Kontuhartzaitzak, bere ikuskatze lana betez, honakoak kontrolatuko ditu: deialdiaren oinarriak, emateko proposamenak, justifikazioaren onarpenak, bai eta diru laguntzak itzuli, deuseztatu eta atzera egiteko proposamenak ere, halakorik bada.

Dirulaguntzak ez dira inola ere emango edo ordainduko pertsonak nahiz erakunde onuradunek ez badituzte beren zerga betebeharrak (Zerga Administrazioako Estatu Agentzia, Foru Ogasuna eta Udal Ogasuna) eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuta, ez eta Donostiako Udalarekin edo haren mendeko erakunderen batekin egindako zorrengatik

behartze bidez kobratzeko prozeduretan sartuta badaude ere, harik eta zor horiek egiaz ordaintzen eta kitatzen edo betetzen diren arte, salbu eta zor horiek geroratuta edo zatikatuta badaude, edo haien betearaztea etenda badago.

Epez kanpoko zorrak, likidatuak eta galdagarriak konpentsazio-prozeduraz ordainduko dira.

- 6) Ekitaldi bakoitzaren hasieran, gastua onartu eta xedatzeko izapidea egingo da. Gastu horren zenbatekoa udal erakundeei egin beharreko transferentzia eta ekarpenei lotutako konpromisoak erregistratzeko aurrekontuan jasotako adina izango da. Justifikazioa urteko kontuak aurkeztearekin batera egingo da. Enpresa erakunde publikoek eta sozietateek, kontuekin batera, auditoretza txostena ere aurkeztu beharko dute.

Transferentzia arruntak badira, erakunde bakoitzarekin adostutako maiztasunarekin, obligazioaren aitorpena izapidetuko da, kasuan kasuko aldiari dagokion proportziosko zatian.

Inbertsioetarako transferentziak eta ekarpenak aurrerakin itzulgarritzat joko dira, baldin eta denak edo haien zati bat ez badira beharrezkoak gastu eta sarreraren oreka ezartzeko azken baliabide gisa.

- 7) Dirulaguntzak izapidetzeko prozedura arintze aldera eta aurrekontu-kudeaketa aurreratze aldera, dirulaguntzak aurretiaz izapidetzeko aukera ezartzen da. Horren arabera, dagokion dirulaguntzen deialdia ebazpena emango den aurreko ekitaldi batean onartu ahal izango da, baldin eta gastua dirulaguntza ematen den urte berean gauzatzen bada eta baldintza hauetakoren bat betetzen bada:
 - a) Udal Aurrekontuan normalean egotea kreditu egoki eta nahikoa egin nahi den gastua aurrekontuarekin ordaindu ahal izateko.
 - b) Kreditu egoki eta nahikoa egotea gastua egiten hasi behar den ekitaldiari dagokion Udal Aurrekontuaren Proiektuan.

Kreditua badagoela egiaztatzeko agiriaren ordez, aurrekontu zerbitzuak txosten bat egingo du eta bertan aditzera emango du aurreko baldintzetako bat betetzen dela.

Izapide aurreratuak egiten direnean, deialdian ageri den gehieneko guztizko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa izango da eta, hortaz, deialdian berariaz adierazi beharko da dirulaguntzak emango direla baldin eta kreditu egoki eta nahikoa badago diru laguntzak emateari buruzko ebazpena hartzen denean. Onartutako aurrekontuko kreditua aurreikusitakoa baino handiagoa bada, organo kudeatzaileak erabaki ahal izango du deialdiari aplikatzen zaion ala ez, ebazpena hartu aurretik gastua onartzeko espedientea bideratu eta gero, beste deialdirik egin beharrik gabe.

2.3.3. 23. artikulua. Inbertsioak.

Espedientean honako dokumentu hauek jasoko dira:

- a) Aurrekontua, kostu osoaren berri emanda
- b) Baldintzen agiriak.
- c) Aurrekontu erabileraren proposamena.

2.4. IV. kapitulua. Justifikatu beharreko ordainak, kutxa finkoaren aurrerakinak eta aurretiko ordain aplikatu gabeak.

2.4.1. 24. artikulua. Justifikatu beharreko ordainak.

Justifikatu beharreko ordain aginduak emango dira beharreko erosketak eta zerbitzuak erosteko, horrelakoak ezin badira ordaindu kutxa finkoaren aurrerakinen bitartez eta ezin badira egiaztagiria eskuratu erosi aurretik.

Gastua baimentzeko eskumena duen organoa izango da justifikatu beharreko ordainketa onartzeko eskumena duena

Gastua justifikatu beharko da hartutako dirua erabili bezain laster eta, nolana, dirua jaso eta 3 hilabeteko epean, ekitaldia itxi aurretik.

Dirua zaintzeaz onuraduna bera arduratuko da.

Ezin izango zaie, oro har, aurrekontu-kontzeptu berberengatik justifikatu beharreko ordainketa-agindu berririk eman oraindik justifikatu gabeko funtsak dituzten pertsona

edo erakunde hartzaileei, baldin eta justifikaziorako gehieneko epea igaro bada dagozkien kontuak aurkeztu gabe.

Kontabilitate Atalak erregistro batean jasoko ditu justifikatu beharreko gastuak, eta zerrendan onuraduna, kantitatea, helburua eta justifikatzeko azken eguna agertuko dira.

Kontuhartzaitzak egindako gastuak fiskalizatuko ditu, honako alderdi hauen arabera: aurrekontua Betearazteko Arau honen 51. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Kontuhartzaitzak lehendakariari adieraziko dio zeintzuk diren behar bezala egiaztatu gabeko kontuak, erantzukizuna ez ezik, dirua itzultzeko ere eska dezan beharrezkoa izanez gero.

2.4.2. 25. artikulua. Kutxa finkoaren aurrerakinak.

Zenbateko txikiko eta berehalako ordainketako funtzionamendu-gastuetarako, hala nola lokomozio-gastuetarako, zenbateko txikiko elikagai eta edarietarako, komunikazioetarako eta antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuetarako, kutxa finkoko aurrerakin gisa jaulki ahal izango dira justifikatu beharreko funtsak.

Oro har, aurrekontukoak ez diren eta iraunkorrak diren funtsen hornidurak, berehalako arretarako eta ondoren ekitaldiko aurrekontuari aplikatzeko egiten direnak, kutxa finkoko aurrerakintzat hartuko dira.

Horrelakoak baimentzeko organo eskuduna gastua baimentzeko organo eskudun bera izango da.

Diruzaintzaren kontutik ordainduko dira kutxa finkoaren aurrerakinak.

Kutxa finkoko aurrerakinak jasotzen dituzten pertsonak edo erakundeek justifikatu egin beharko dituzte egindako gastuak, diruzaintza-premiei erabilitako funtsak birjartzea gomendatzen duten heinean, eta, gehienez, aurrekontu-ekitaldia amaitu aurretik.

Funtsak berrizjartzeko ordainketa aginduak egingo dira justifikaturiko kopuruei dagozkien aurrekontuko kontzeptuetan oinarrituta.

Onuradunak berak du jasotako dirua zaintzeko ardura.

Kutxa finkoko aurrerakinen fiskalizazioa Aurrekontua Betearazteko Arau honen 51. artikuluan aurreikusitako moduan egingo da.

2.4.3. 26. artikulua. Aplikatzeke dauden aurreko ordainketak.

Aplikatzeke dauden aurreko ordainketak egingo dira egin beharreko gastuak hainbat aurrekontu sailetan jaso behar badira eta ordaina emateko unean nola banatuko den jakiterik ez badago.

alde honetan sartzan dira ikastaroetara joateagatik langileei egindako aurreko ordainketak, non aurreratutako zenbatekoak ikastaroaren ordainketa, dietak, lokomozio-gastuak eta abar barne hartzen dituen.

Gastua justifikatu ostean aurretiko ordaina arautzeari ekingo zaio.

Gastua baimentzeko organo eskuduna izango da aurretiko gastua baimentzen duen berbera.

Gastua justifikatu beharko da hartutako dirua erabili bezain laster eta, nolana, dirua jaso eta hiru hilabeteko epean, ekitaldia itxi aurretik.

Jasotzailea bera arduratuko da dirua zaintzeaz.

Kontabilitate Atalak aurretiko ordainen erregistroa eratuko du eta bertan zerrendatuko dira jasotzailearen izen-deiturak, emandako kantitatea, xedea eta justifikatzeko azken eguna.

Kontuhartzaitzak lehendakariari adieraziko dio zeintzuk diren behar bezala egiaztatu gabeko kontuak, erantzukizuna ez ezik, dirua itzultzeko ere eska dezan beharrezkoa izanez gero.

2.5. V. kapitulua. Obligazioak iraungitzea.

2.5.1. 27. artikulua. Obligazioak iraungitzea.

Udalak aitortutako eta pertsona edo erakunde hartzekodunaren aldeko obligazioen ordainketa aplikatu beharreko araudian ezarritakoaren arabera preskribatuko da.

Kontuhartzaitzak, obligazioak iraungi ahala, iraungitzeko proposamena aurkeztuko du, espedientean horren gaineko egiaztagiria jasota.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko Ordezkaririk onartu beharko ditu obligazio iraungiak.

3. III. TITULUA: SARRERENA

3.5.1. 28. artikulua. Udal Diruzaintza Publikoa.

Udalaren Diruzaintza Publikoa Udalaren finantza-baliabide guztiek osatzen dute, aurrekontuko eragiketengatik edo aurrekontuz kanpoko eragiketengatik.

Udal Diruzaintza Publikoa kutxa bakarraren hastapenaren bitartez arautuko da.

Ezin izango da aurrekontuko funtsen edo aurrekontukoak ez direnen sarrerarik egin, kontu-hartzailearen iritzia jasotzen duen kontabilitate-agiriaren bidez ez bada.

3.5.2. 29. artikulua. Diruzaintza plana

Udal diruzaintzak egin behar du urteko diruzaintza plana.

Baliabide likidoak ahalik eta errentagarritasun handiena lortzeko irizpidearen arabera kudeatuko dira, eta, nolana ere, aldi baterako epemugetan betebearrak betetzen direla bermatuko da.

Aurrekontua gauzatzetik lortzen diren baliabideak obligazio guztiak betetzeko erabiliko dira. Xede jakinei lotutako diru-sarrera espezifikoetarako eta aurrekontuz kanpokoetarako kutxa bakarraren printzipioak aginduko du, eta, beraz, gastuen aurrekontua gauzatzean ez da bereiztuko baliabideen helburua. Diru-sarreraren helburua likidazioan jarriko da agerian.

3.5.3. 30. artikulua. Diru sarreraren gestio faseak.

Diru-sarreraren aurrekontua, gehienez ere, honako fase hauetan kudeatuko da:

- a) Sarrera konpromisoa.
- b) Eskubideak aitortzea.
- c) Onartutako eskubideak kobratzea.

3.5.4. 31. artikulua. Dirua sartzeko konpromisoa.

Egintza honen bidez, erakunde edo pertsona publiko edo pribatu batek bere burua behartzen du, modu hutsean edo baldintzatuan, akordio edo itun bidez, udalari gastu jakin bat osorik edo zati batean finantzatzera.

3.5.5. 32. artikulua. Eskubideak aitortzea.

Diru-sarrera bakoitzaren berariazko araudiaren arabera, Udalaren aldeko eskubide bat sortzen duen egintza.

Erroldaren bidez kudeatzen diren diru-sarreretan, behin betiko onartutako errolda zerga-bilketako sailari kobratzeko entregatzen zaionean kontabilizatuko da eskubidearen aitortpena.

Gainerako zerga, prezio publiko eta bestelako sarreretarako, eskubide aitortpena zerga biltegira kobratzera bidaltzen zaionean kontabilizatuko da.

Autolikidazioetan eta aurretiko zorpetzerik gabeko bestelako sarreretan eskubidea aitortuko da zenbatekoaren sarrera kontabilizatzen den unean.

Dirulaguntzetan eta transferentzietan eskubidea aitortuko da xedaturiko baldintza guztiak beteta, dirulaguntza eta transferentziak exijitzeko modukoak izatean.

Mailegu eragiketetan, eskubidearen onarpena, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak finantza entitateekin eragiketaren esleipena ebazten duenean izango da.

3.5.6. 33. artikulua. Onartutako eskubideak ordaintzea.

Diruzaintzari ordainduz, aldeztu aurretik edo aldi berean aitortutako eskubide bat ordaintzeko eragiketa.

Udal baliabideen diru-sarrerak Ordenantza Fiskal bakoitzaren, Zerga bilketako Ordenantza Orokorren, indarrean dauden lege xedapenen eta Udalak hartutako erabakien arabera sartuko dira.

Zerga eta aldizkako kobrantza prezio publikoen egutegi fiskala Zerga Bilketako Ordenantza Orokorrean agertzen dena izango da.

Aplikaturako igoera oro har onartutako oinarrien eta/edo tasen igoeren ondorio den erroldak ez dira banan banan jakinarazi beharko.

Zergak biltzeko ordezkariak

- a) Enpresakudeatzailearen eskuztenda aparkaldimugatuko gune gisaseinaleztatutako jabari publikoaren erabilera pribatiboagatikotasaren autolikidazioagatikoko

kobrantzaren kudeaketa.

- b) Garabi-zerbitzuaren eta bide publikotik kendutako ibilgailuen biltegiaren enpresa kudeatzailearen esku uzten da enpresak kudeatzen duen udal-gordailuan garabi-zerbitzua emateagatiko eta ibilgailuak zaintzeagatiko tasaren autolikidazioagatiko kobrantzaren kudeaketa.

Bilketaz Diruzaintza arduratuko da eta berak egiaztatu beharko du zerga bilketaz indarrean diren arauak betetzen diren edo ez.

3.5.7. 34. artikulua. Kreditu eragiketak eta bermeak emateko mugak.

- 1) Maileguak

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko Ordezkariek ahalmena du finantza erakundeetan kredituak gestionatzeko, Aurrekontuko inbertsio programak finantzatzeko beharrezkoa izanez gero.

Kreditu eragiketak Sektore Publikoko Kontratuen Legean arautzen ez direnez gero, prestatze eta esleitze aldiek honako izapideak bete beharko dituzte:

- » Diruzaintzak eta Kontuhartzaitzak txostena egin ondoren, Finantza Zuzendaritzak Tokiko Gobernu Batzarrari helaraziko dio kreditu-eragiketa onartzeko proposamena.
- » Probintziako aldizkari ofizialean argitaratuko dira eskatuko diren maileguen baldintzak, finantza-erakunde interesdunek eskaintzak aurkez ditzaten.
- » Kreditu eragiketa Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariaren ebazpen bidez esleituko da, Diruzaintzak txostena egin ondoren.

Hipoteka maileguak izanez gero, interes tipoa moduan ezarriko da horrelako mailegu motari dagokiona.

- 2) Interes tipoa babesteko eta arriskua gestionatzeko eragiketak.

Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariek ahalmena du interes tipoa babestu eta arriskua gestionatzeko ezein kontratu negoziatu, adostu eta izenpetzeko.

Kontratazio espedienteak Diruzaintzaren eta Kontu hartzailearen txosten bat izango du, eta bakarra izan daiteke.

Hitzartutako eragiketen berri eman beharko dio Udaltzari.

3) Diruzaintza eragiketak eta epe laburreko maileguak.

Maileguetarako adierazitako irizpide berak ezarriko dira, epearena izan ezik, gehienez urtebetekoa izango da eta.

3.5.8. 35. artikulua. Finantza erakundeetan funtsak gordailutzea.

2024ko ekitaldian, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak, diruzaintzako aldi baterako soberakinak errentagarri bihurtzeko eragiketak egin ahal izango ditu, likidezia eta segurtasun baldintzak betetzen dituzten inbertsioen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 56.2 artikulua ezartzen duenaren arabera. Zenbatekoa, gehienez ere, 10 milioi eurokoa izango da.

Tokiko Gobernu Batzordearen eskumena izango da inbertsio horiek kontratatzea, zenbatekoa 10 milioi eurotik gorakoa izanez gero.

3.5.9. 36. artikulua. Berandutza interesak eta lehentasunezko interesa.

Orokorrean, berandutza interesa Foru Zerga Arauan ezarritakoa izango da. Arau horrek ez badu ezartzen, legezko interesa 0,25 puntu gehituta izango da.

Zerga Bilketako Ordenantza Nagusian adierazitako lehentasunezko interes tipoa, diruaren interes legala -0,25 puntu izango da.

Interesak zor nagusia ordaintzeko unean kalkulatu eta ordainduko dira. Enbargatutako ondasunak edo bermeak exekutatu gero, lortutako likidoa eskubidea ezerezteko aplikatzen den unean likidatuko dira interesak. Eskudiruzko bahituren edo kontuen kasuan, bahituraren unean interesak kalkulatu eta atxiki ahal izango dira.

3.5.10. 37. artikulua. Diru sarrerak kontabilizatzea.

Udalak jaso behar dituen diru sarrerak dagokion aurrekontu kontzepturako sarrera-agindu bidez formalizatuko dira, Kontuhartzaitzak funtsak sartu direla jakiten duenean.

Sarrerak edozergatik ezin badira kontabilizatu beren aurrekontu kontzeptuan, aplikatu gabeko sarrera moduan kontabilizatuko dira eta ondorio guztietarako, kutxa bakarrean gordeko dira.

Sailek dirulaguntzen emakidari buruzko informazioa dutenean, Diruzaintzari edo Udal Kontu-hartzailetzari jakinaraziko diote, unean uneko jarraipena egiteko. Sailek justifikatuko dituzte dirulaguntzak, eta Kontuhartzailetzari jakinaraziko zaizkio egiaztagiriak bidaltzeko idatziak.

Diruzaintzak kontrolatuko du ez dagoela banku kontuetan ordaindutako diru sarrerarik kontabilitate formalizazioaren zain, zerga-bilketako kontu murriztuetan izan ezik.

4. IV. TITULUA: AURREKONTUA LIKIDATZEA

4.5.1. 38. artikulua. Gastuen egoerako aurretiko eragiketak.

Ekitaldia amaitutakoan egiaztatu beharko da obligazio aitortpena sortzen duten udal erabaki guztiek kontabilitateko "0" fasean jasota daudela.

Emandako dirulaguntzak "0" fasean kontabilizatuko dira, baldin eta ordaintzeko baldintza jakin batzuk bete behar badira. Funtsak jasotzeko, baldintza horiek bete beharko dira.

Oro har, abenduaren 31 arteko erosketa, obra, zerbitzu edo gastuetako obligazioak ekitaldian jasoko dira hurrengo ekitaldiko urtarrilaren 31 baino lehen onartuz gero.

Aurrekontu ekitaldiaren azken egunean obligazio aitortuak betetzeari lotuta ez dauden kredituak baliogabetuta geratuko dira, arau honen 12. artikuluan jasotako salbuespenekin izan ezik.

4.5.2. 39. artikulua. Sarrerren egoerako aurretiko eragiketak.

Abenduaren 31 arte aitortutako eskubide guztiak likidatu beharreko aurrekontuan erabili behar dira.

Aurreko artikulua arabera aitortutako obligazioek onartutako eta formalizatu edo xedatu gabeko maileguetatik datozen baliabideak behar badituzte, ekitaldian kontabilizatu ahal izango dira aitortutako eskubideak, beharrezko zenbatekoan.

4.5.3. 40. artikulua. Ekitaldia likidatzea.

Abenduaren 31ko ondorioekin itxi eta likidatuko da aurrekontua.

Likidazioa frogatzeko egoera-orriak hurrengo urteko martxoaren 11 baino lehen egin beharko dira.

Alkateak onartuko du likidazioa eta Ogasuneko Batzordea jakitun jarri beharko du hurrengo osoko bilkuran.

4.5.4. 41. artikulua: Diruzaintzako gerakina.

Funts likidoen eta kobratzeke dauden eskubideen baturak osatuko du, eta horiei ordaintzeke dauden obligazioak eta gauzatzeko zailtzat jotzen diren eskubideak kenduko zaizkie.

Egiten zailak diren diru sarreratzat hartuko dira bi urtetik gorako antzintasuna dutenak, salbu eta eskubidearen edo zordunaren ezaugarriek bestelakorik justifikatzen badute.

Zerga bilketan kobratzeke dauden eskubideak kaudimengabeziatarako hornitu beharko dira, eta diru bilketak proposatutako irizpidearen arabera kalkulatu da, aurreko ekitaldietako informazio erabilgarriaren arabera.

Diruzaintzako gerakina aldekoa bada, hurrengo ekitaldiko kreditu aldaketak finantzatzeko erabil liteke.

Diruzaintzako gerakina positiboa bada eta kreditu faltagatik likidatzen den ekitaldian kontabilizatu ezin izan diren gastuak badaude, egin daitezkeen administrazio jarduerak alde batera utzita, diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako aurrekontu aldaketa espezifiko bat izapidetuko da. Aldaketa hori, Kontuhartzaitzaren txostena jaso ondoren, Alkateak onartuko du eta Ogasun Batzordeak horren berri izango du ekitaldiko likidazioarekin batera edo, hala badagokio, ondoren.

Diruzaintzako gerakina negatiboa bada, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko ordezkariak, Kontuhartzaitzaren txostena jaso ondoren, finantza oreka berrezartzeko hartu beharreko neurriei buruzko proposamena helaraziko dio Udalbatzari.

5. V. TITULUA. PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

5.5.1. 42. artikulua. Edukia, eskumena eta mugak.

Aurrekontuan jasotako plantillak funtzionarioentzat, lan kontratupekoentzat eta behin-behineko langileentzat erreserbatutako lan postu guztiak biltzen ditu, behar bezala sailkatuak eta aurrekontuan diru izendapenarekin.

Lanpostuen zerrendak postu guztiak biltzen ditu, honakoak zehaztuta: izena, mota, betetzeko sistema, ordainsariak eta postua betetzeko betekizunak.

Honakoak dagozkio Gobernu Batzarrari:

- a) Lanpostuen zerrenda onartu eta aldatzea.
- b) Plantilla aldatzea, baldin eta horrek berekin ez badakar ekitaldiko gastu arrunta handitzea.

Udalbatzari dagokio plantilla aldatzea, baldin eta aldaketa horrek ekitaldiko gastu arrunta handitzea badakar berekin. Hasierako onarpena eman ondoren, aurrekontua hasiera batean onartzeko ezarritako izapide berak bete beharko dira.

6. VI. TITULUA. BARNE KONTROLA

6.1. I. KAPITULUA. BARNE KONTROLA

6.1.1. 43. artikulua. Barne-kontrolerako eredia.

2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, martxoaren 5koa, zeinak toki ogasunak arautzen dituen legearen testu bategina onartzen duten (TOALTB), 213. artikuluan xedatutakoaren arabera, batia 424/2017 Errege Dekretuak, apirilaren 28koa, zeinak tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen; Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru Arauaren IV. Tituluak eta 32/2018 Foru Dekretuak, abenduaren 27koa, zeinak Gipuzkoako Tokiko Sektore Publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen xedatutakoaren arabera, DONOSTIAKO UDALAREN ETA HAREN MENPEKO ERAKUNDEEN ETA HARI ATXIKITAKO ERAKUNDEEN ekonomia- eta finantza-jardueraren barne-kontrola kontu-hartzaitzako organoak egin behar duela, kontu-hartzaitzako eginkizuna eta finantza-kontrola betez. Bietan txertatuko da efikazia- eta efizientzia-kontrola, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 68. artikuluan jasotakoa.

Kontu-hartzaitzako organoak, halaber, tokiko sektore publikoa osatzen duten subjektuek emandako dirulaguntzen eta laguntzen onuradunei eta erakunde laguntzaileei aplikatu beharreko araudian ezarritako kontrola egin beharko du.

Kontu-hartzaitzako organoa da edozein fiskalizazio-lanen arduraduna eta tokiko sektore publikoaren jardueraren barne kontrolaren esparruan jarduteko eskumenaren titularra.

Titulu honetako artikuluetan aurreikusi ez den orori dagokionez, goian aipatutako araudia aplikatuko da.

6.1.2. 44. artikulua. Barne-kontrolaren eremu subjektiboa.

- a) Udalari
- b) Erakunde autonomoi: Kiroletako Udal Patronatua, Donostiatik eta Musika eta

Dantza Eskola

- c) Tokiko enpresa-erakunde publikoei: Donostia Kultura eta Donostiako Etxegintza Enpresa Erakunde Publikoa.
- d) Tokiko merkataritza-sozietateak: Anoeta Kiroldetgia SA, Sociedad del Balneario SL, Donostia Sustapena SA, Donostiako Tranbia Konpainia SA, Servicios Funerarios Donostia-San Sebastián SA, Eguskiza SA, Donostia Turismoa SA, San Telmo Museoa, Victoria Eugenia Antzokia SA.
- e) Udalera atxikitako bestelako erakundeak: Miramar Jauregia Partzuergoa, Zorroaga Donostia Fundazioa, Cristina Enea fundazioa, Kursaal Elkargunea SA, Donostiako Musika Hamabostaldia SA, Tabakalera Nazioarteko Arte Garaikidearen Zentroa SA.

6.2. II. KAPITULUA. EGINKIZUN KONTU-HARTZAILETZA

6.2.1. 45. artikulua. Kontu-hartzaitzaren faseak.

Kontu-hartzaitzak fase hauek izango ditu:

- a) Eduki ekonomikoko eskubideak aitortzen dituzten, gastuak baimentzen edo onartzen dituzten, gastuak xedatzen edo konprometitzen dituzten eta funtsen zein baloreen mugimenduak erabakitzen dituzten egintzak alde aurretik fiskalizatzea.
- b) Obligazioak aitortu aurretik kontu-hartzea eta inbertsioa materialki egiaztatzea.
- c) Ordainketa-aginduaren kontu-hartze formala egitea.

6.2.2. 46. artikulua. Diru-sarreretan kontu-hartzaitza egitea.

Udalaren eta Udalari atxikitako Miramar Jauregia Partzuergoaren eskubideen eta diru-sarreraren alde aurreko fiskalizazioaren ordez, kontabilitatean arrazoi-hartzeari dagokion kontrola eta finantza-kontrolaren bidezko ondorengo kontrola ezartzen dira.

Hala ere, alde aurreko fiskalizazioaren mende jartzen dira, honako hauek:

- » Bidegabe kobratutako diru-sarrerak itzultzearen ondoriozko antolamendu- eta ordainketa-egintzak.

Eskubideak aitortzeari edo likidatzeari ala funtsak edo baloreak Udalarena zein Udalari atxikitako Miramar Jauregia Partzuergoaren aldeko mugitzeari buruzko eragozpenek ez dute etete-ondoriorik izango.

6.2.3. 47. artikulua. Gastuetan kontu-hartzailletza egitea.

Udalaren eta hari atxikitako Miramar Jauregia Partzuergoaren alde aurreko fiskalizazioa eta kontu-hartzailletza honako arlo hauetan zerrendatutako gastu-espedituei buruzko oinarrizko betekizunen alde aurreko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidearen bidez gauzatu da, GIDAn jasotakoaren arabera:

- 1) Langileen arloa
- 2) Kontratazioa, ondare-kontratuak eta kontratu pribatuak zein ondare-erantzukizuna
- 3) Dirulaguntzak, transferentziak eta hitzarmenak
- 4) Hirigintza
- 5) finantza-gastuak
- 6) Ordainketaren kontu-hartze formala eta materiala, kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketak.

Aldez aurreko fiskalizazioak eta kontu-hartzailletza mugatuak oinarrizko alderdi edo betekizun hauek egiaztatuko ditu:

Orokorrak

- » Aurrekontu-kreditua egotea eta proposatutakoa egokia izatea, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 13.2 a) artikuluaaren arabera onartu nahi den gastuaren edo betebeharraren izaera kontuan hartuta.
- » Betebeharrak edo gastuak organo eskudunak sortzea, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 13.2 b) artikuluan xedatutako baldintzetan.
- » Prozeduran irregulartasun larriak egotea, egintzaren erabateko deuseztasuna eragin dezaketenak, hain zuzen ere gastu betebeharrak dakartzatenak edo udal-ogasunari edo hirugarren bati kalte ekonomikoak eragin diezazkioketenak.

Osagarriak:

- » Eduki ekonomikoa duen egintzaren izaeraren arabera, gastu-betebeharrak ekar ditzaketen oinarritzko alderdiak edo betekizunak GIDAn zehaztu dira.

GIDAn, oinarritzko betekizun orokorrak A letradun atalean ageri dira.

Oinarritzko baldintza gehigarriak B letradun (Ministro Kontseiluaren 2008ko, 2018ko eta 2021eko erabakiak aplikatzearen ondoriozkoak) eta C letradun (Donostiako Udalaren, bere erakunde autonomoen eta Miramar Partzuergoaren oinarritzko betekizun gehigarriak) ataletan ageri dira.

Era berean, organo kontu-hartzaileak egokitzat jotzen dituen ohar osagarriak egin ahal izango ditu, baina ohar horiek ez dute inola ere ekarriko kasuan kasuko espedienteen izapidetzea etetea.

Fiskalizazioaren eta aurretiazko kontu-hartzailetzaren araubide orokorra aplikatuko zaie gastu eta betebeharrak mota batzuei, baldin eta alde aurreko fiskalizazio eta kontu-hartzailetzaren mugaturako oinarritzko betekizunen araubidea adostu ez bada, bai eta zenbateko zehaztugabeko gastuei ere.

Kontu-hartzailetzako eginkizuna betetzeko prozedurari dagokionez, Gipuzkoako toki sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko II. tituluko III. kapituluan xedatutakoa beteko da.

6.2.4. 48. artikulua. Gastuen alde aurreko fiskalizazioaren mende ez daudenak.

Honako gastu hauek ez dira alde aurreko fiskalizazioaren mende egongo:

- a) Material inbentariaezinen gastuak.
- b) Kontratu txikiak, 52. xedatuko terminoetan.
- c) Aldizkako gastuak eta segidako traktuko gainerako gastuak, egintzaren edo kontratuaren edo haren aldaketen hasierako aldiari dagokion gastua fiskalizatu ondoren.

Gastu horiek finantza-kontrolaren xede izango dira, etengabeko kontroleko modalitatean, eta modu objektibo, sistematiko eta ausazkoan gauzatuko dira lagin adierazgarrien gainean, planifikatzen diren finantza-kontrolako jarduketan esparruan.

6.2.5. 49. artikulua. Fiskalizazioa eta ondorengo kontu-hartze osoa.

Oinarrizko betekizunen aldez aurreko fiskalizazioaren eta kontu-hartzaitza mugatuaren mende dauden betebeharrak edo gastuek ondorengo beste kontu-hartzaitza bat izango dute, zeina aipatutako fiskalizazioa eragin zuten egintzen, dokumentuen edo espedienteen lagin adierazgarri baten gainean gauzatuko baita, laginketa- edo auditoretza-teknikak aplikatuz, kasu bakoitzera aplikatu beharreko xedapenekin bat datozela egiaztatze eta kredituen kudeaketa legea zein heineraino betetzen den zehazteko.

Ondorengo erabateko kontrol hori etengabeko finantza-kontrolaren barruan sartzen da, eta, hala badagokio, kontu-hartzaitzako organoak egindako Finantza Kontroleko Urteko Planean (FKUP) gauzatuko da.

6.2.6. 50. artikulua. Obligazioak aitortzeko aurretiazko kontu-hartzea eta inbertsioaren egiaztapen materiala egiteko kontu-hartzaitza.

Udalaren eta Miramar Jauregia Partzuergoaren gastuen likidazioak edo obligazioen aitortpenak aldez aurreko kontu-hartzaitzaren mende daude, haien jatorria lege batean zein baliozkotasunez egindako negozio juridikoetan izanda ere.

Kontu-hartze hori oinarrizko betekizunen araubidearen arabera egingo da, arau honen 47. artikuluan xedatutako terminoetan.

Betebeharrak aitortzeko aurretiazko kontu-hartzaitzaren ondoriozko jardueretan berrikusi beharreko beste alderdi eta/edo baldintza batzuk deskribatu dira GIDAn.

Inbertsioaren egiaztapen materialen kontu-hartzea egiteko, Gipuzkoak tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 20. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo da.

6.2.7. 51. artikulua. Ordainketaren kontu-hartze formala eta materiala. Kutxa finkoko aurrerakinak eta justifikatu beharreko ordainketak.

Kontu-hartzailetzako funtzioaren barruan sartzen dira, halaber, ordainketaren kontu-hartze formala eta materiala, justifikatu beharreko ordainketa-aginduen eta kutxa finkoko aurrerakinen alde aurreko fiskalizazioa, eta justifikatu beharreko ordainketen AE-ET kutxa finkoko aurrerakinen justifikazio-kontuen kontu-hartzea.

Kontu-hartze hori oinarrizko betekizunen araubidearen arabera egingo da.

Oinarrizko gidaren 6. atalean deskribatu dira ordainketaren, kutxa finkoko aurrerakinen eta justifikatu beharreko ordainketen kontu-hartze formal eta materialetik eratorritako jarduketetan berrikusi beharreko beste alderdi eta/edo betekizun batzuk.

Justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak justifikatzeko kontuetan adierazitako alderdiak egiaztatzeko, partida bakoitza justifikatzen duten kontuak eta dokumentuak aztertuko dira.

6.2.8. 52. artikulua. Kontratazio txikiaren barne-kontrola.

Ez zaie alde aurreko fiskalizaziorik aplikatuko 10,000,00 €-ko edo gutxiagoko (BEZik gabe) obra-kontratu txikiei, eta 5.000,00 €-ko edo gutxiagoko (BEZik gabe) zerbitzu- zein hornidura-kontratuei eta kontratu pribatuei.

Adierazitako zenbatekoak gainditzen dituzten kontratu txikiak alde aurretik fiskalizatuko dira, oinarrizko betekizunen araubidearen arabera eta, bertan, GIDAko fitxetan jasotako alderdiak egiaztatuko dira.

Kontratu txiki guztien betebeharra aitortzeko kontu-hartzea egitean, Gipuzkoak tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 19. artikuluan xedatutakoa betetzen betetzen dela egiaztatuko da.

Era berean, kontratu txikiak finantza-kontrol iraunkorraren barruan dauden laginen gainean kontrolatuko dira ondoren. Organo kontu-hartzaileak egindako Finantza Kontroleko Urteko Planean (FKUP) gauzatutako da kontrol hori

6.2.9. 53. artikulua. Gastuak aldeaz aurretik fiskalizatu eta kontu hartzeko prozedura.

Organo kontu-hartzaileak, dagokion ebazpena eman aurretik, eduki ekonomikoko betebeharrak edo funts zein baloreen mugimenduak sor ditzakeen egintza, dokumentu edo espediente oro aztertuko du, (aldeaz aurreko fiskalizazioan) aplika daitezkeen xedapenekin bat datorrela ziurtatzeko halaber, dagokion ebazpena eman aurretik, egiaztatuko du betebeharrak legearekin edo agintaritza eskudunek sinatutako negozio juridikoekin bat datozela, eta pertsona edo erakunde hartzekodunak, hala badagokio, (aurretiazko kontu-hartza) korrelatiboa bete edo bermatu duela.

Kontu-hartzaitzako organoak, kontu-hartzaitzako funtzioaren xede diren alderdiak egiaztatu ondoren, uste badu fiskalizatu edo kontu-hartu beharreko espedientea legearen arabera dela, bere adostasuna adieraziko du sinatutako eginbide baten bidez, eta ez du hura arrazoi beharko.

Kontu-hartzaitzako organo ez badago ados aztertutako egintzen, dokumentuen edo espedienteen edukiarekin edo formarekin, idatziz adierazi beharko ditu eragozpenak.

Eragozpenak adierazten badira, Gipuzkoak tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 12., 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

Kontrolaren ondorioak honako hauek izango dira:

Eragozpen etengarria: arau orokorra da oinarritzko betekizunen bat bete ez eta gastu- edo ordainketa-betebeharrak eragiten dituzten egintzetarako. Eragozpen hori kentzea alkateari dagokio, edo Udalbatzari. Azken horren ardura izango da eragozpena kentzea, baldin eta kreditu-eskasia edo -desegokitasuna bada eragozpenaren oinarria, edo bestela bere eskumeneko betebeharrak edo gastuei buruzkoa bada.

Eragozpen ez-etengarria: desadostasuna eskubieei eta diru-sarrerei buruzkoa denean. Era berean betebeharrak edo gastuetan, funtsezkoak ez diren akats konpongarriak direnean, eta, akats horiek izanez gero, eragozpenak ez duenean izapidetzea eteten, betebeharra aitortzeko fasea iristen denean, funtsezkoak ez diren akats horiek zuzendu ez badira betebeharra eten egingo da.

Oharrak: Oharren bidezko fiskalizazioak ez du etete-ondoriorik izango, eta ez da desadostasun-prozedurarik abian jarriko.

6.2.10. 54. artikulua. Kontu-hartzaitzako eginkizuna ez betetzea.

Kontu-hartzaitza nahitaezkoa bada eta egin ez bada, ezin izango da obligazioa aitortu, ez eta ordainketa izapidetu ere, eta ezin izango da jarduketa horien kontu-hartzerik egin, hain zuzen ere ez-egite hori ezagutu eta ebatzi arte.

Organu kontu-hartzaileak, espediente batez arduratzean atzematen badu kontu-hartzaitzako eginkizuna ez dela bete, hala adieraziko dio espedienteari hasiera eman dion agintaritzari, eta, aldi berean proposamenari buruzko iritzia emango du, txosten hori jarduketei gehituta, Udalbatzako presidentek (bere eskumeneko betebeharrak edo gastuak direnean) edo tokiko gobernu-batzarrak erabaki ahal izan dezan prozedurak aurrera jarraitzen duen ala ez, eta, hala badagokio, bidezkoak diren gainerako jarduketak egin ditzan.

Tokiko gobernu-batzarrak ebazteko eskumena badu, espedientea izapidetzeko ardura duen edo Miramar Jauregia Partzuergoa atxikituta dagoen sailaren edo arloko zinegotzigoaren organo titularrak helarazi beharko dio espedientea Tokiko Gobernu Batzarrari eta eskumen hori ezin izango da eskuordetu.

Kontu-hartzaitzako eginkizuna betetzen ez bada, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 28. artikulua araberera jardungo da.

Udalbatzako edo tokiko gobernu-batzarreko presidentek aldeko erabakia hartzen badu ere, horrek ez du esan nahi egon daitezkeen erantzukizunak eskatu behar ez direnik.

6.3. III. KAPITULUA. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN FINANTZA-KONTROLA

6.3.1. 55. artikulua. Finantza-kontrola.

Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 29. artikuluan aipatzen den finantza kontrolaren xedea de egiaztatze udal-erakunde honen sektore publikoko zerbitzuen funtzionamendua bat datorrela legezkotasun-, ekonomia-, efizientzia- eta eraginkortasun-printzipioekin, eta egiaztatze kredituak behar bezala lortu eta erabiltzen direla, bai eta haiekin finantzatutako eragiketak benetakoak eta legearen arabekoak direla ere.

Etengabeko kontrolaren eta auditoretza publikoaren bidez gauzatuko da udal-sektore publikoaren jardura ekonomiko-´finantzariaren finantza-kontrola, Finantza Kontroleko Urteko Planean zehaztutako irismenarekin.

Udalaren, haren erakunde autonomoen eta atxikitako partzuergoen gaineko etengabeko kontrol-modalitatearen arabera egingo da finantza-kontrola, betiere finantza-kontrolaren plangintzan ezarritakoaren arabera.

Finantza-kontrola, auditoretza publikoaren modalitatean –zinak barne hartzen baititu kontuen auditoretza, betetze-auditoretza eta auditoretza operatiboa–, aurreko paragrafoan deskribatutakoez bestelako mendeko gainerako erakundeei aplikatuko zaie, erakunde autonomoetan izan ezik; izan ere, erakunde horiek kontu-auditoretzaren mende egongo dira haien kontabilitatea ez badago organo kontu-hartzailearen esku.

Kontu-hartzaitzako organoak proposatuta, aipatutako auditoretza publikoak egiteko, konpainia pribatuak kontratatu ahal izango dira, eta konpainia horiek organo horrek emandako jarraibideak bete beharko dituzte, hargatik eragotzi gabe kontu-hartzaitzako organoak bere egitea auditoretzen emaitzak, hala dagokionean.

Kontu-hartzaitzak, halaber, finantza-kontrola egingo die udal-sektore publikoa osatzen duten subjektuek emandako dirulaguntzen eta laguntzen onuradun diren erakunde laguntzaileei, baldin eta haiek aurrekontu orokorren kontura finantzatzen badira, hain zuzen ere Dirulaguntzei buruzkoa Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.

Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen azaroaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren III. Tituluan ezarritakoaren arabera egingo da finantza-kontrola.

6.3.2. 56. artikulua. Finantza-kontrolaren plangintza.

Urtero, kontu-hartzaitzako organoak Finantza Kontroleko Urgeko Plana egingo du. Plan horretan, ekitaldian zehar egin beharreko etengabeko kontroleko eta auditoretza publikoko jarduketak jasoko dira, eta, informazioa emate aldera Udalbatzara bidaliko da, eta Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuaren 31. artikuluan ezarritakoaren arabera izapidetuko da.

6.3.3. 57. artikulua. Finantza-kontrolaren emaitzak.

Etengabeko kontrol-jarduketan eta auditoretza bakoitzaren emaitza txosten idazkietan dokumentatuko da, dagozkion jarduketan emaitzekin eta, hala badagokio, kontrolatu beharreko jardueri buruzko gomendiotan.

Era berean, berehala zuzendu beharreko akatsak adieraziko dir, eta hurrengo kontrol-jardueretan horiek behar bezala egin direla egiaztatu beharko da.

Kontrolatutako jarduera ekonomiko-finantzarioa zuzenean kudeatzen duen organo kontu-hartzaileak eta toki-erakundeko lehendakaritzak igorriko dituzte finantza-kontrolako behin betiko txostenak.

Tokiko sektore publikoko erakundeen kontabilitate-informazioa eta, hala badagokio, urteko kontuen auditoretza-txostenak egoitza elektronikoko konparatiboetan argitaratu beharko dira.

6.4. VI. KAPITULUA. LABURPEN-TXOSTENA ETA EKINTZA-PLANA

6.4.1. 58. artikulua. Laburpen-txostena.

Urtero, kontu-hartzaitzako organoak barne-kontrolako txosten bat igorriko dio Udalbatzari, lehendakaritzaren bidez.

Kontu orokorraren onespenerekin batera bidaliko da txostena.

6.4.2. 59. artikulua. Ekintza-plana.

Aurreko artikuluan aipatutako barne-kontrolako txostena igorri ondoren, toki-erakundeko lehendakaritzak ekintza-plan bat formalizatuko du, gehienez ere 3 hilabeteko epean. Ekintza-plan horretan, honako hauek jasoko dira: hartutako zuzenketa-neurriak, neurri horiek gauzatzeko ardura duen pertsona eta korporazioan bertan nahiz mendeko edo atxikitako erakundeetan egin beharreko jarduketan egutegia, hori guztia Gipuzkoako tokiko sektore publikoko erakundearen barne-kontrolaren araubide juridikoaren Foru Dekretuko 38. artikuluan xedatutako baldintzetan.

6.4.3. 60. artikulua. Udaleko kontu-hartzaitzak egin beharreko beste txosten batzuk.

Oro har, eta administrazio publikoei eman beharreko informazioa alde batera utzi gabe, finantza-kontrola egitean, ordenamendu juridikoak kontu-hartzaitzako organoari esleitutako kontrol-jarduerak egingo dira, besteak beste:

- 1) Erakundeak egindako edozein kreditu- edo zorpetze-eragiketa hitzartzeari edo aldatzeari buruzko txostena.
- 2) Erakunde autonomoek, enpresa-erakunde publikoek edo Udalaren mendeko merkataritza-sozietateek epe luzerako kreditu- edo zorpetze-eragiketak hitzartzeari buruzko txostena.
- 3) Aurrekontu orokorraren proiektuari buruzko txostena.
- 4) Aurrekontuaren luzapenean egindako doikuntzei buruzko txostena.

- 5) Aurrekontu-aldaketei buruzko txostena.
- 6) aurrekontuaren likidazioari buruzko txostena.
- 7) Aurrekontua gauzatzeari eta diruzaintzaren mugimenduei eta egoerari buruzko txostena.
- 8) Justifikatu beharreko ordainketak eta kutxa finkoko aurrerakinak emateko araei buruzko txostena.
- 9) Berankortasunari buruzko legean ezarritako baldintzetan erregistratutako eta kontabilizatu gabeko fakturei buruzko txostena, kontabilitate-organo horri dagokio. Era berean, berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak direla-eta igorri beharreko gainerako txostenak, baldin eta kontu-hartzaitzako organoak eman behar baditu.
- 10) Konpromiso-kredituak eta urte anitzeko gastuak mugetara egokitzeari buruzko txostena.
- 11) Gehiengo kualifikatuta behar duten gaiei buruzko txostenak.
- 12) Likidatutako ekitaldiko aurrekontu-egonkortasunaren betetze-mailaren ebaluazioari buruzko txostena, salbu eta dokumentu berean aztertzen bada, kontu-hartzaitzako organoak aurrekontuaren likidazio-txostenarekin batera igorrita.
- 13) Kontu orokorrari buruzko txostena.
- 14) Finantza-jasangarritasunaren balorazio-txostena, zerbitzu publikoak zuzenean kudeatzeko moduen erabilerari buruzkoa, toki-araubidearen oinarriak ezartzen dituen legearen 85. artikuluan xedatutako terminoetan.
- 15) Ekonomia, finantza edo aurrekontuen arloan lehendakaritzak edo zinegotzien herenak eskatutako txostenak, irizpenak eta proposamenak.
- 16) Udal talde politikoentzako diru-esleipenen kontrol-txostena
- 17) Indarrean dagoen legeriak kontu-hartzaitzako organoari esleitzen dizkion gainerako txostenak.

7. VII. TITULUA UDAL TALDE POLITIKOENTZAKO DIRU-ESLEIPENEN ZERTARAKOA ETA JUSTIFIKAZIOA

7.1. I. KAPITULUA. ESLEIPENAK

7.1.1. 61. artikulua. Zenbatekoa

Udal talde politikoek esleipen ekonomiko bat izango dute, Udalbatzak finkatuko duena agintaldiaren hasieran. Elementu finko batez osatuko da esleipena –talde guztientzat berdina–, bai eta elementu aldakor batez ere, talde bakoitzeko kide kopuruaren arabera, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeetan oro har ezartzen diren mugen barruan.

Hasieran aurreikusitako zenbatekoek indarrean jarraituko dute agintaldi horretan. Hala ere, zenbatekoak urtero eguneratu ahal izango dira, Udalbatzak onartutako irizpideen arabera.

Esleipenak hilero ordainduko dira.

7.1.2. 62. artikulua. Aldez aurreko betekizunak

Udal talde politikoek, diru-esleipen horiek jaso ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Identifikazio Fiskaleko Zenbaki propioa eskuratzea, atxikita dagoen alderdi politikotik bereizia.
- b) Bere titulartasuneko kontu korrontearen zenbaki bat eskuratzea.

7.1.3. 63. artikulua. Araubide juridikoa

Udal talde politikoentzako diru-esleipenak arautzen dituen araubide juridikoak honako lege-arauak bete behar ditu: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 73.3 artikulua, Donostiako Udalbatzaren Araubide Organikoaren 23. artikulua eta hurrengoak eta Alderdi politikoaren finantzaketari buruzko 2007ko uztailaren 4ko 8/2007 Lege Organikoaren 2.Bat artikulua.

Udal talde politikoentzako diru-esleipenak dirulaguntza publikoak dira, talde politikoen funtzionamendu-beharrei erantzuteko ematen dira, eta taldeek justifikatu behar dituzte. Dirulaguntzak direnez, aurretik adierazitako araudi espezifikoaren arabera arautuko dira. Izan ere, 2003ko azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren aplikazio-eremutik kanpo daude (4.d art.), aplikazio subsidiarioa posible bada ere.

7.2. II. KAPITULUA. ZERTARAKOA

7.2.1. 64. artikulua. Zertarakoa

Hemen arautzen diren diru-esleipenak udal talde politikoaren funtzionamendurako erabili behar dira, hau da, taldeen jardun korporatiboak eragindako gastuak ordaintzeko.

Ezin izango dira erabili korporazioaren zerbitzura diharduten inolako langileen ordainsariak ordaintzeko edo ondare-izaerako aktibo finkoak izan daitezkeen ondasunak eskuratzeko.

Oro har, aktibo finkotzat hartuko dira urtebetetik gorako bizi-tza baliagarria dutenak.

7.2.2. 65. artikulua. Funtzionamendu-gastuak

Adibide gisa, honako hauek onartzen dira funtzionamendu-gastu gisa:

- a) Protokolo-gastuak: protokolo-gastutzat hartzen dira helburu instituzionala dutenak, helburu hori nahitaez erlazionatua badago udal talde politikoaren helburuekin, eta udal taldeak Donostiako Udalaren instituziotzat hartzen badira.

Udal talde politikoko kideek, hirugarrenekin edo talde gisa, egindako otorduek eragindako gastuak justifikatu beharko dira, bileraren arrazoi zehatza eta bertaratutakoak adierazita.

- b) Joan-etorrien gastuak: udal talde politikoko kideek beren jarduera politikoari lotuta egindako joan-etorriak kalte-ordaina jasotzeko modukotzat hartuko dira.

Norberaren ibilgailuan egindako joan-etorrien gastuak ordaindu ahal izango dira, zerbitzuen ondoriozko kalte-ordainei buruzko 1993ko otsailaren 2ko 16/1993 DEKRETUAN ezarritakoaren arabera. Onargarritzat joko dira, halaber, helburua den lekuan aparkatzeko gastuak, bai eta helburua den lekuan ibilgailu publikoak erabiltzekoak ere.

Dagokion udal talde politikoko bozeramaileak baimendu beharko ditu joan-etorriak, eta egindako bidaiaren arrazoiak edo helburua adierazi baimenean.

- c) Kanpoko zerbitzuengatiko gastuak: profesionalen edo enpresen aholkularitza-zerbitzuak kontratatzea, udal jarduerari lotutako lanak edo azterlanak egiteko. Atal honetan inkesten enkarguak sartzen dira.

Ez dira onartuko lan iraunkorrek eragindako gastuak, ez eta udal talde politikoarekin lan-harremantzat hartu daitezkeen lanek eragindakoak ere.

- d) Dohaintzak eta maileguak: ez dira gastu onargarritzat hartuko udal talde politikoek hirugarrenei egindako dohaintzak, pertsona fisikoak izan zein juridikoak izan. Hirugarrenei maileguak edo fidantzamenduak ematea ere ez da onargarritzat jotzen.
- e) Banku-gastuak eta aseguruak: onargarritzat jotzen dira udal talde politikoaren titulartasuneko banku-kontuen ohiko kudeaketatik eratorritako gastuak. Ez dira gastu onargarritzat hartuko dagokion banku-erakundearekin dituen betebeharrak ez betetzetik eratorritako komisioak edo interesak, hala nola zorpeko-komisioak, zorra erreklamatzegatik sortutakoak eta abar. Era berean, ez dira onargarritzat joko banku-kontuez bestelako finantza-kontratuetatik eratorritako gastuak eta interesak.

Kargua betetzean zinegotziak duen erantzukizun zibila estaltzeko aseguruen gastuak onargarriak izango dira.

- f) Beste gastu arrunt batzuk: logotipoa edo taldearen identifikazioa duen bulegoko material pertsonalizatua erosteak eragindako gastuak; talde-jarduerak egiteko lokalen edo esparruen errentamendu-gastuak; informazio-buletinak editatzeko gastuak, banaketa barne; taldearen jarduerarekin lotutako webguneak sortzeko eta mantentzeko gastuak; taldearen jarduerarekin lotutako azterlanak eta komunikazio-gastuak; prentsa, aldizkariak eta datu-baseak harpidetzeko gastuak, baldin eta Udaleko zerbitzu orokorrek eskuratu ezin badituzte; taldeko kideek taldearen barruan dituzten zereginekin zerikusia duten gaietan prestatzeko gastuak; taldearen ordezkari gisa, ongintzako ekitaldietara joateko gastuak, hala nola antzokietako, emanaldietako edo antzekoetako sarrerak; ongintzako martxa edo otorduetatik

eratorritako gastuak.

7.2.3. 66. artikulua. Udal talde politikoek alderdi politikoei egindako ekarpenak

Udal talde politikoek beren diru-esleipenak (osorik edo zati batean) beren alderdi politikoei emanaz gero honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute justifikatzeko:

- » Udal talde politikoaren eta alderdi politikoaren artean sinatutako hitzarmena edo antzeko akordioa, korporazioaren agintaldiaren iraupen berekoa. Bertan, adieraziko dira alderdi politikoak udal talde politikoari emango dizkion zerbitzuak.
- » Alderdiaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren arduradunaren ziurtagiria ekarpen horiek indarrean dagoen esparru juridikoan jasotako legezko kasuetan erabili direla eta Kontuen Auzitegian aurkeztutako alderdiaren kontabilitate orokorrean diru-sarrera gisa agertzen direla egiaztatzen duena.

Ekarpen horiek izaera finalista izango dute, eta udal talde politikoaren jarduera propioari eta funtzionamenduari lotutako prestazioei erantzun beharko diete.

7.3. III. KAPITULUA. JUSTIFIKAZIOA ETA ITZULKETA.

7.3.1. 67. artikulua. Kontabilitate espezifikoa

Udal talde politikoek urteko diru-esleipenaren kontabilitate espezifikoa bat eraman beharko dute, egiten duten eragiketa bakoitza erregistratuz eta fakturak edo dokumentu baliokideak kontserbatuz. Faktura edo dokumentu horiek indarrean dagoen legeriak eskatzen dituen baldintzak beteko dituzte, eta udal taldearen izenean igorriko dira talde horrek egindako gaastoari dagokionez.

Udal talde politiko bakoitzak bere barne-mekanismoak ezarriko ditu kontabilitatea kudeatzeko eta gastuak baimentzeko eta erabiltzeko.

Udal Kontu Hartzaitzak eskuratuko die Eguneroko Liburua eramateko erredua.

7.3.2. 68. artikulua. Diru-esleipenaren justifikazioa

Urteko diru-esleipena egin eta hurrengo urteko martxoaren 1a baino lehen, eta, gainera, agintaldi bakoitzaren amaieran, udal talde politikoek dagokien Justifikazio Kontua eskuratuko diote Udal Kontu Hartzaitzari. Kontu horretan honako hauek jasoko dira:

- » Diru-esleipenaren kargura egindako gastuen memoria edo zerrenda, dokumentu bakoitzaren datuak jasotzen dituen (zenbakia, data, hirugarrena, kontzeptua, ordaintzeko modua eta ordainketa-data). Gastuen memoria edo zerrenda udal taldekobozeramaileak behar bezala sinatuta egongo da.
- » Udal Kontu Hartzaitzak, laginketa-tekniken bidez, eskatu ahal izango ditu fakturak nahiz trafiko juridiko merkataritzakoan edo administrazio-eraginkortasunaren esparruan froga-balio baliokidea duten dokumentuak, baita ordainketak egiaztatzeko dokumentazioa ere.
- » Hitzarmena edo antzeko akordioa, alderdi politikoei ekarpenak eginez gero (lehenengo justifikazio-kontuarekin edo agintaldiak irauten duen bitartean hitzarmenaren baldintzak aldatzen badira).
- » Arau honen 66. artikuluan aipatzen den Alderdiaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren arduradunaren ziurtagiria.
- » Talde politikoko bozeramailearen baimenak, joan-etorrien gastuei dagozkienak
- » Motiboen eta jankideen justifikazioa, otordu-gastuen kasuan.
- » Hala badagokio, itzulketen ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen edo behar bezala justifikatu gabeko zenbatekoen kasuan.

Azken urteko justifikazio-kontuak urtarrilaren 1etik korporazioak kargua benetan uzten duen egunera arteko aldia hartuko du.

7.3.3. 69. artikulua. Agintaldiaren amaierako kontua

Agintaldiaren amaierako kontua ekitaldi bakoitzeko justifikazio-kontuek osatuko dute. Udal talde politikoek, agintaldia amaitu eta hurrengo hilabetea amaitu baino lehen, kontu horiek bidaliko dizkiote Udal Kontu Hartzaitzari, agintaldiari dagozkion gastuen laburpen-koadro batekin batera, kontzeptuka multzokatuta.

7.3.4. 70. artikulua. Gerakinak eta itzulketak

Erabili ez diren udal talde politikoei esleitutako zenbatekoak (soberakinak) edo Titulu honetan aurreikusitako xede eta baldintzei dagokienez behar bezala justifikatu ez direnak, Udal Diruzaintzara itzuli beharko dira, taldeen ekimenez, agintaldiaren amaieraren justifikazio-kontuarekin batera hura amaiatzean, edo Udal Kontu Hartzailtzaren kontrol-jardueren ondorioz.

7.4. IV. KAPITULUA. KONTU HARTZAIETZAK KONTROLATZEA. KONTU- EMATEA UDALBATZARI

7.4.1. 71. artikulua. Udal Kontu Hartzailtzak kontrolatzea

Arau honen 68. artikuluan xedatutako terminoekin bat justifikazio-kontua eginda, Udal Kontu Hartzailtzak haren kontrola egingo du, eta dagokion txostena idatziko, Titulu honetan eta oro har aplikatu beharreko araudian aurreikusitako mugak betetzen direla egiaztatzeko helburu bakarrarekin.

7.4.2. 72. artikulua. Udalbatzari kontu-ematea

artikuluan aipatzen den kontabilitate espezifikoa Udalbatzaren esku jarriko da, hark eskatzen duen bakoitzean.

Nolanahi ere, Udalbatzak urtero izango du diru-esleipen horien gainean Udal Kontu Hartzailtzak egindako kontrol-txostenaren berri, Kontu Orokorra onartzearen ondorioz.

7.5. V. KAPITULUA. PUBLIZITATEA ETA GARDENTASUNA

7.5.1. 73. artikulua. Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea

Udaletako talde politikoei urtero ematen zaizkien diru-esleipenak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

7.5.2. 74. artikulua. Diru-esleipenen publizitate aktiboa

Hurrengo ekitaldiko bigarren seihilekoan, informazio hau Udalaren Gardentasun Atarian argitaratuko da:

- » Udal taldeek urkeztutako urteko gastuen zerrenda zehatza, kontzeptuen arabera ordenatuta.
- » Udal Kontu Hartzailtzaren urteko kontrol-txostena, gastuen justifikazioari buruzkoa.

7.5.3. Lehen xedapen gehigarria. Akordio edo hitzarmen lehiaketak

Alkateak berak gauzatu behar ditu Prozesamendu Zibilaren Legean eta Paguak Etearean gaineko Legean xedaturiko lehiaketetako udal akordio edo hitzarmenak

7.5.4. Bigarren xedapen gehigarria. Informazioa

Udal taldeek noiznahi eskura dezakete aurrekontu balantze jatorrizkoaren aldakia. Ogasun Batzordean balantzea hiru hilean behin azter daiteke.

7.5.5. AZKEN XEDAPENA

Alkatetzak ahalmena du behar beste ebazpen emateko honako Arau hau garatu eta argitzeko.

8. I. ERANSKINA

DONOSTIAKO UDALAREN ETA, HALA BADAGOKIO, HAREN MENPEKO ETA HARI
ATXIKITAKO ERAKUNDEEN FISKALIZAZIOA ETA AURRETIKO KONTU-HARTZE MUGATUA
EGITEKO GIDA

9. II. ERANSKINA

ZABALGARRIAK JASOTAKO KREDITUAK

Betearazte subsidiarioengatiko sarrerak	>	Norbanakoei edo entitateei eskatu beharreko betearazte subsidiarioetarako kreditua.
Etxeko Laguntza Zerbitzuan sarrera handiagoak.	>	Etxeko Laguntza Zerbitzua emateko kreditua.
Garabi zerbitzua emategatiko sarrerak.	>	Garabi zerbitzua emateko kredituak.
Aseguru etheen kalte ordainak.	>	Konpondu eta zaintzeko lanak egiteko kreditua.
TAO.	>	Zerbitzuak sortutako gastuetarako kreditua.
Beste dirulaguntza batzuk, ekintza jakin batzuetarako.	>	Dirulaguntzak jasotzeko moduko ekintzak kudeatzen dituzten programen kredituak.
Pobreziaren Aurkako Planean sarrera handiagoak.	>	Pobreziaren aurkako dirulaguntzetarako kreditua.
Eusko Jaurlaritzarekin izenpeturiko ikastetxe hitzarmena.	>	Ikastetxeak hobetzeko kreditua.
Isunak.	>	Isunen kudeaketarako kreditua.
Sarrera arrunten edo kapitalaren sarrera gehiago	>	Zabalgarrizat hartutako partidak
Udalaren aldeko epaiketa-kostuak	>	Udalaren aurkako epaiketa-kostuak.